Kultura
Kulturaren Euskal Plana
Plan Vasco de la Cultura

kulturaren euskal kontseilua
consejo vasco de cultura



# EUSKAL HERRIKO KULTUR EMANALDIEN ESKAINTZA

## 2008 URTARRILA-EKAINA

# AURKIBIDEA


TXOSTENAREN AURKEZPENA 3. Orrialdea.

HELBURUAK 4. Orrialdea.

METODOLOGIA, ADIERAZLEAK ETA HIZTEGIA 5. Orrialdea.

IKERKETAREN FITXA TEKNIKOA 10. Orrialdea.

I. DATU OROKORRAK 11. Orrialdea.

II. ANALISIA SEKTOREKA 22. Orrialdea

- MUSIKA 23. Orrialdea
- ANTZERKIA 32. Orrialdea
- ZINEMA 38. Orrialdea
- DANTZA 44. Orrialdea
- ERAKUSKETAK 49. Orrialdea
- BERTSOLARITZA 54. Orrialdea
- HITZALDIAK 60. Orrialdea
- AZOKAK 65. Orrialdea
- BISITAK 68. Orrialdea

I ERANSKINA "Euskal Kulturaren eskaintza Iparraldean" 73. ORR.

II ERANSKINA: "Euskarazko kultur emanaldien eskaintza" 79. ORR.

# TXOSTENAREN AURKEZPENA

Ikerketa hau Kulturaren Euskal Planaren garapenaren barnean kokatzen da Kulturaren Euskal Behatokiaren (KEB) eragiketen osagarri. Kulturaren Euskal Kontseiluak komunikabideen bitartez (prentsa idatzia : edizio digitalak zein idatziak) gizarteak jasotzen dituen kultur emanaldien eskaintzaren jarraipen-lana egiteari hasiera eman dio txosten honen bidez.

Jarraian agertzen den txostena, Kulturaren Euskal Planaren Idazkaritza Teknikoak (Kualitate Lantaldeak) **Euskal Herrian 2008ko urtarrila eta ekaina bitartean Euskal Herriko komunikabideetan jasotako kultura jardueren jarraipen, bilketa, kodetze eta analisiaren emaitza da.**

**KULTUR EMANALDIA**: Edozein diziplina artistikotan (musika alorrekoa, eszenikoa, ikus-entzunezko edo/eta plastikoa edo ondarearen zabalkundea edo sustapenari lotutakoa) egindako gertaera, ordu eta leku zehatz batean programatua.

Ikerketa hau EAE (Euskal Autonomi Erkidegoa), Nafarroa (Nafarroako Foru Erkidegoa) eta Iparraldean burututako **13.656 kultur emanaldiren analisiaren emaitza da**, kulturako sektore ezberdinen egoeraren berri emateko balio du.

Txosten hau urteko beste balantze batekin (2008ko urtarrila – abendua) osatuko da eta eskainitako datuek hausnarketarako bidea eman nahi dute bilakaera eta azterketa konparatiboetan sakonduz.

Txostena bi zati bereizitan banatua dago. Lehen zatian komunikabide idatziek ezagutarazitako kultur eskaintzaren datu orokorren analisi deskribatzailea egin da, bigarren zatian EAE eta Nafarroako kultur errealitatea osatzen duten sektore bakoitzaren ikerketa zehatzari ekin zaio, Iparraldeko kasua era bereizian aztertuz (I Eranskina). Horrez gain, txosten bukaeran euskarazko kultur emanaldiak aztertuko dira (II.Eranskina). Datuak osatzeko, kapitulu bakoitzaren bukaeran kultur eskaintzaren egoeraren eta banaketaren berri emango duten ondorioak atera dira sintesi bezala.

Lehen seihileko-txosten honek 2 analisi espezifiko eskaintzen ditu (I eta II Eranskinak):

1- I ERANSKINA **"Euskal Kulturaren eskaintza Iparraldean"**. Ikerketa monografiko honek Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan euskal kulturarekin lotutako ekitaldien banaketa aztertzen du. (Ikus 73. orr.)

2- II ERANSKINA. **"Euskarazko Kultur emanaldien eskaintza" monografikoa.** Euskal Herriko kultur ekitaldietan euskarak duen tokiaren eta banaketaren datuen analisi zehatza (ikus 79. orr)

# HELBURU OROKORRAK ETA ZEHATZAK

## Txostenaren helburu orokorra

**Txosten honek Euskal Herriko komunikabideetako agenden bidez iragarritako kultur emanaldien eskaintza definituko duen mapa zehatza ematea du helburu, ezaugarri bereziak eazgutzeko eta ondorengo bilakabidea bermatzeko**. Modu horretara sortutako lan-tresnak balioko du:

- Kultur emanaldien definizioa garatu eta eskaintzaren jarraipena egiteko.
- Kultur sektore ezberdinetako agenteen plangintza lanak erraztu eta laguntzeko.
- Urteroko bilakabidearen profilak osatzeko.

## Txostenaren helburu zehatzak

1.- Euskal Herriko kultur ekitaldien banaketa geografikoa ezagutzea.

2.- Kultur jarduerak sortzen dituzten oinarrizko agenteak identifikatzea.

3.- Kultur jardueren sektorekako banaketa aztertzea.

4.- Kultur jarduеretan euskarak duen lekua aztertzea.

5.- Sektorearteko analisiak sortzea (urteko txostenak)

6.- Kultur emanaldien eskaintzaren jarraipen ebolutibo bat egitea.

# METODOLOGIA ETA ADIERAZLEAK

## 1.- ITURRIAK

Kultur jarduerei buruzko eguneroko informazioa Euskal Herrian argitaratutako egunkari garantzitsuenen agendetan oinarrituta bildu da :

**EUSKADI**

- El Correo(Bizkaiko edizioa)
- Deia
- El Diario Vasco
- Diario de Noticias de Gipuzkoa
- El Correo (Arabako edizioa)
- Diario de Noticias de Álava
- Gara
- Berria

**NAFARROA**

- Diario de noticias de Navarra
- Gara
- Berria

**IPARRALDEA**

- Euskal Kultur Erakundeko web gunea (EKE)
- Gara
- Berria

# METODOLOGIA ETA ADIERAZLEAK

## 2.- KULTUR JARDUERAREN JARRAIPEN-SISTEMAREN ALDAGAIAK

Emanaldi bakoitzaren datuak biltzeko orduan ondoko aldagaiak erabili dira:

- **Data:**
  - Hilabetea
  - Asteko eguna
  - Emanaldiaren ordutegia

- **Lekua:**
  - Lurraldea
  - Eskualdea
  - Udalerria.

- **Kultur jarduera mota:**
  - Musika
  - Aldi baterako erakusketak
  - Antzerkia
  - Dantza
  - Zinema ez komertziala
  - Bertsolaritza
  - Bisitak
  - Azokak
  - Kultur hitzaldiak
  - Formakuntza

Azken lau mota hauetan Kulturaren Euskal Planeko sektoreekin erlazionatutako emanaldi edo gertaerak bakarrik hartu dira kontuan.

- **Esparru/gune mota:** musika aretoa, erakusketa aretoa, arte galeria, antzokia, zinema, taberna-diskoteka, kultur etxea, leku publikoa, gaztetxea, gune masiboa, ikastetxea, elakarteetako gunea, liburutegia, finantza erakundeetako aretoak, museoa, merkatal zentruak, jatetxea, hotela.

- **Emanaldiaren hizkuntza**
  - Euskera,
  - Gaztelera
  - Bestelakoak (gainotzeko hizkuntza guztiak multzo honetan sartzen dira)

- **Artisten jatorria:**
  - Euskadi
  - Nafarroa
  - Iparraldea
  - Estatua
  - Gainontzekoak (beste jatorrikoak multzo honetan sartzen dira)

# METODOLOGIA ETA ADIERAZLEAK (FITXA TEKNIKOA)

| JARDUERA MOTA | BILKETA UNIBERTSOA ETA ANALISIA | JARRAIPENAREN ALDAGAI OROKORRAK | SEKTOREETAKO ADIERAZLE ESPEZFIKOAK (KATEGORIEKIN) |
|---|---|---|---|
| Musika | Zuzeneko musika jardueren unibertso osoa | •Data: Asteko eguna<br>•Lekua<br>•Esparru mota | •Tipologia: mota (klasikoa/herri-musika/musikalak) eta estiloa (Pop-Rocka, Folk-munduko musikak. Jazz/blues/soula, elektronika, musika bandak, kamara orkestrak, bakarlariak, instrumentistak, koralak, orkestra sinfonikoak, kontzertuetarako obra lirikoak).<br>• Artistaren datuak: izena, hizkuntza (euskara, gaztelera, gainontzeko erdarak) eta jatorria (Euskadi, Nafarroa, Iparraldea, estatua eta gainontzekoak). |
| Antzerkia | Antzerki jardueren unibertso osoa. | •Data: Asteko eguna<br>•Lekua<br>•Esparru mota | •Mota: Antzezlana, gainontzeko antzerki diziplinak (magia, pailazoak, ipuin kontalariak, bakarrizketak, txotxongiloak, poesia errezitaldiak, zirkoa).<br>•Konpainiaren datuak: Izena, jatorria (Euskadi, Nafarroa, Iparraldea, Estatua eta gainontzekoak).<br>•Obraren datuak: Hizkuntza (gaztelera, euskara, gainontzeko erdarak). |
| Dantza | Dantza jardueren unibertso osoa. | •Data: Asteko eguna<br>•Lekua<br>•Esparru mota | •Tipologia: Klasikoa, garaikidea, tradizionala, gainontzekoak.<br>•Konpainiaren datuak: izena eta jatorria (Euskadi, Nafarroa, Iparraldea, Estatua eta gainontzekoak) |
| Zinema ez komertziala | Zirkuito komertzialetatik kanpoko zine emanaldiak bakarrik. | •Data: Asteko eguna<br>•Lekua<br>•Esparru mota | •Tipologia: Luzemetraia, laburmetraia, dokumentalak, besteak.<br>•Proiekzioaren jatorria: AEB, Europa, Estatua, Euskal Herria, besteak |
| Erakusketak | Aldi baterako erakusketak bakarrik. | •Data: Asteko eguna<br>•Lekua | •Tipologia: pintura, eskultura, argazkilaritza, maketak, multimedia, mistoa<br>•Artistaren jatorria:, Euskadi, Nafarroa, Iparraldea, Estatua eta gainontzekoak |
| Bertsolaritza | Bertso jardueren unibertso osoa. | •Data: Asteko eguna<br>•Lekua<br>•Esparru mota | •Tipologia: Bertso saioa, bertso txapelketa, bertso afaria, bertso bazkaria, bertso-antzerkia eta gainontzekoak |
| Hitzaldiak | Kulturaren Euskal Planeko sektoreekin lotutako jarduerak bakarrik. | •Data: Asteko eguna<br>•Lekua<br>•Esparru mota | •Tipologia: hitzaldi/eztabaidak, liburu aurkezpenak.<br>• Ekitaldiari dagokion Kulturaren Euskal Planeko sektorea: (Agiritegiak, ikusizko arteak eta plastikoak, artisautza, ikus-entzunezkoak, liburutegiak, dantza, euskara, literatura, edizioa, itzulpena, museoak, musika eta industria fonografikoa, ondarea, antzerkia) |
| Azokak | Kulturaren Euskal Planeko sektoreekin lotutako jarduerak bakarrik. | •Data: Asteko eguna<br>•Lekua | •Azokari dagokion Kulturaren Euskal Planeko sektorea: (Agiritegiak, Ikusizko Arteak eta Plastikoak, artisautza, ikus-enztunezkoak, liburutegiak, dantza, euskara, literatura, edizioa, itzulpena, museoak, musika eta industria fonografikoa, ondarea, antzerkia) |
| Bisitak | Kulturaren Euskal Planeko sektoreekin lotutako jarduerak bakarrik | •Lekua<br>•Esparru mota | •Bisitari dagokion Kulturaren Euskal Planeko sektorea: (Agiritegiak, Ikusizko Arteak eta Plastikoak, artisautza, ikus-enztunezkoak, liburutegiak, dantza, euskara, literatura,,edizioa, itzulpena, museoak, musika eta industria fonografikoa, ondarea, antzerkia) |

# HIZTEGIA

## KONTZEPTU OROKORRAK

**KULTUR GERTAERA / KULTUR EMANALDIA:** Edozein diziplina artistikotako (musika alorrekoa, eszenikoa, ikus-entzunezkoa eta/edo plastikoa) gertaera, ondarea zabaltzeko zein sustatzeko atala barne hartuta, ordu zehatz eta leku konkretu batean programatua.

**HILABETERO BIZTANLEKA EGINDAKO KULTUR JARDUEREN TASA:** Lurralde bakoitzean hilabetero egin diren kultur jarduera kopurua biztanleka banaturik. Ikerketa honetan 10.000 biztanleko ataletan egin da neurketa. Adierazle hau jarduera mota konkretuetara moldatu daiteke (musika, antzerkia, zinema…) edota gaikako analisietara (euskara).

## KOKAPENA

**EAE (Euskal Autonomi Erkidegoa):** *Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabak osatutako entitate administratiboa.*

**Nafarroako Foru Komunitatea:** *Nafarroako Komunitateari erreferentzia egiten dion entitate administratiboa.*

**Iparraldea:** *Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa hartzen ditu aintzat.*

## ESPARRU EDO GUNEAK

**KULTUR GUNEAK:** Titulartasun eta kudeaketa publikoko eraikina, kultura sustatzera bideratutako jarduerak biltzen dituztenak, kultur banaketa eta errealizazioa bermatuz. *Ikerketa honetan kultur-etxeak, auzo-etxeak, erabilera anitzeko aretoak… sartzen dira multzo honetan.*

**FINANTZA ERAKUNDEETAKO ARETOAK:** Titulartasun eta kudeaketa pribatuko eraikinak, banketxe, aurrezki kutxa eta gainontzeko finantza erakundeen eskuetan daudenak, kultura sustatzera bideratuak, bere difusio eta ekoizpena bermatuz. *Multzo horretan sartzen dira: babestutako kultura-aretoak, finantza erakundeen fundazioetako aretoak, banketxetako sukurtsalak,...*

# HIZTEGIA

## ESPARRU EDO GUNEAK

**ELKARTEETAKO GUNEAK:** Kudeaketa pribatuko eraikina, kultur elkarte, politiko edota gizarte-mailakoak, kultura sustatzeko jarduerak dituztenak (kultur ekitaldiak) nahiz eta bere zeregin nagusia ez izan hori. *Multzo honetan sartzen dira: kultur elkarteen aretoak, ateneoak, sozietateak, bizilagun elkarteak…*

**GUNE MASIBOAK:** Titulartasun eta kudeaketa publiko zein pribatuko eraikinak, kultura sustatzeko jarduerak egiten dituztenak (ekitaldi kulturalak) nahiz eta ez izan hori bere zeregin nagusia. *Multzo honetan sartuko genituzke frontoiak, polikiroldegiak, pabilioiak eta karpak esaterako.*

**LEKU PUBLIKOA:** Publiko zabala ibili daitekeen kale, plaza edota leku-publikoa.

**MUSIKA ARETOA:** Normalean titulartasun eta kudeaketa pribatua duen eraikin zein lokala. Musika ekitaldiak sortu eta eskaintzen dituena, noizean behin beste diziplina batzuetako emanaldiak hartzen dituelarik.

## MUSIKA

**GERTAERA MUSIKALA:** Musika alorreko edozein diziplina artistikoko emanaldia, leku eta ordu zehatz batean programatua..

**MUSIKA EKITALDIA:** Gertarea musikal berdinaren barruan egindako antzezpena edo ekitaldia, bakarlari eta/edo talde ezberdinek egina, estilo eta hizkuntza desberdinetan eskaini daitekeena**.**

# IKERKETAREN FITXA TEKNIKOA

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| Izenburua | Euskal Herriko Kultur Emanaldien Eskaintza (2008 urtarrila - ekaina) |
| Entitatea | Kulturaren Euskal Kontseilua. Idazkaritza Teknikoak egina (kualitate Lantaldea) |
| Orrialde kopurua | 88 |
| Urtea | 2008ko iraila |
| Aztertutako epea | 2008 Urtarrila- ekaina |
| Analisiaren unibertsoa | Euskal Herriko idatzizko komunikabideen bidez jasotako kultur emanaldiak. |
| Emanaldi kopurua | 13.656 |
| Informazio-iturriak | Euskal Herriko lurralde ezberdinetako egunkari garrantzitsuenak eta EKEko web-gunea |

# I. DATU OROKORRAK (11-21)

EMANALDIAK ASTEKO EGUNETAN ZEHAR 12. Orria.

EMANALDIAK LURRALDEKA 13. Orria

EMANALDIAK ESKUALDEKA 14. Orria

EMANALDIAK UDALERRIKA 15. Orria

EMANALDIAK KULTUR JARDUERAREN ARABERA 17. Orria

EMANALDIAK AZPIEGITURAREN ARABERA 18. Orria

EMANALDIAK ORDUAREN ARABERA 19. Orria

EMANALDIAK HIZKUNTZAREN ARABERA 20. Orria

DATU OROKORREN ONDORIOAK 21. Orria

# AZTERTUTAKO EMANALDIEN KOPURU OSOA (2008ko URTARRILA-ABENDUA) 13.420 Emanaldi

## EMANALDI KOPURUA EGUNAREN ARABERA

- Hilabeteka egindako banaketan argi agertzen da urtarriletik aurrera emanaldi kopurua gorantza doala hilabetero, maiatzean (2.833 emanaldi) goia jotzen duelarik, ekainean (2.133) pixkat jeisteko.

- Bildutako datuek erakusten dute jaiegun edota zubia duten asteetan, (adib: Aste Santua martxoan) emanaldi gutxiago egiten direla aste arruntekin alderatuz.







- Asteko egunetan egindako banaketak erakusten du astebukaeran biltzen direla emanaldi gehien, ostiral eta larubantetan egiten dira (%58,3) emanaldi guztien erdia baino gehiago.

- Aipagarria da apirilaren 18a (ostirala) eta maiatzaren 10a (larunbata) direla 2008ko lehen seihilekoan ekitaldi gehien ospatu diren egunak, 200 inguru egunero.

- Emanaldien hilabetekako banaketaren batez bestekoa 2.200 emanalditik gorakoa da.

- Eguneko batez besteko 73,7 emanalditan dago.

- Emanaldi gehienak astebukaeretan egiten dira.

# KULTUR EMANALDI KOPURUA LURRALDEKA




➢Banaketa lurraldeka egitean ikusten dugu Bizkaian egiten direla gehien (%37,7), Gipuzkoa (% 30,6) eta Nafarroan (%22) baino gehiago. Beste muturrean Araba kokatzen da emanaldien %9,7arekin.

•**Bizkaian biltzen da emanaldi gehien (% 37,7)**

| LURRALDEA | EMANALDI KOPURUA | LURRALDE KONTZENTRAZIOA/ GUZTIRA | EMANALDIAK /10.000biz.* | HILEKO EMANALDIAK (10.000biz.*) |
|---|---|---|---|---|
| ARABA | 1.307 | 9,73% | 42,78 | 7,13 |
| BIZKAIA | 5.058 | 37,69% | 44,31 | 7,38 |
| GIPUZKOA | 4.104 | 30,58% | 59,05 | 9,84 |
| NAFARROA | 2.951 | 21,98% | 48,70 | 8,11 |
| **GUZTIRA** | **13.420** | **100%** | **48,84** | **8,14** |

•**2008ko lehen seihilekoan EAE eta Nafarroako kultur emanaldien batez bestekoa 10.000 bizt / hilab. 48,84 emanaldikoa da.**

➢Emanaldien banaketa lurraldeka egitean, emanaldiak biztanleka banatzen dituen ratioa azterturik, ikus dezakegu EAE eta Nafarroan 10.000 bizt/ ia 49 emanaldi egiten direla. Hilabeteko batez bestekoa 8, 14 emanaldikoa da.

➢Gipuzkoa da kasu aipagarriena, 10.000bizt / ia 10 emanaldi egiten dira, beste lurraldeetakoa baino kopuru handiagoa beraz. Era berean, aipagarria da Bizkaia , emanaldi gehien bertan biltzen direlako, aztertutakoen %40 baino gehiago hain zuzen.

**10000 bizt/ hilab. emanaldien ratioa, 2008ko urtarrila-ekaina bitartean bildua.*

# KULTUR EMANALDI KOPURUA ESKUALDEKA (balio absolutuak)













- Lurraldeetako hiriburuek biltzen dituzte emanaldi gehien.

Hiriburuak alde batera utzirik:

- Gipuzkoan, eskualdeetan biltzen dira emanaldi gehienak.

- Nafarroa eta EAEko emanaldi gehien biltzen dituzten eskualdeak Bizkaitarrak dira: Uribe Kosta (650) eta Ezkerraldea (613).

# EMANALDI KOPURUA UDALERRIKA

| HIRIBURUAK* | EMANALDI KOPURUA | HILEKO EMANALDIAK (10.000biz.) |
|---|---|---|
| **BILBO** | 2.265 | 10,68 |
| **DONOSTIA** | 1.526 | 13,89 |
| **IRUÑA** | 1.256 | 10,74 |
| **GASTEIZ** | 1.028 | 7,46 |
| **BARAKALDO** | 269 | 4,65 |
| **GETXO** | 244 | 4,97 |
| **BASAURI** | 231 | 8,9 |
| **IRUN** | 192 | 5,29 |
| **TOLOSA** | 163 | 15,18 |
| **ARRASATE** | 154 | 11,6 |
| **BERGARA** | 148 | 16,64 |
| **LEIOA** | 142 | 8,1 |
| **ALTSASU** | 141 | 23,5 |
| **GERNIKA** | 125 | 12,8 |
| **TAFALLA** | 123 | 18,44 |

**kultur ekitaldi gehien egin diren udalerrien zerrenda*

➢ Kultur emanaldiak udalerrika banatzean lurraldeetako hiriburuak agertzen dira lehenik. Hauek, batez bestekoa baino maila altuagoa dute (8,14) 10.000 biztanle/ hileko egindako kultur emanaldietan.

➢Gasteizko kasua aipagarria da, batez bestekoa baino emaitza apalagoak ematen ditu. Donostia, aldiz 10.000 biztanle /hileko emanaldi gehien egiten dituen hiriburua da (13,89).

➢Biztanleria kontuan hartuz balore handienak Gipuzkoako Tolosa eta Bergarak eskaintzen dituzte, Nafarroan Altsasu eta Tafalla dira aipagarrienak. 4 herri hauek EAE eta Nafarroako batez bestekoa bikoizten dute

**•Hiriburuek hartzen dute emanaldien gehiengoa**

**•10.000 biztanle /hileko emanaldien ratio altuena Altsasu, Tafalla, Tolosa eta Bergarak dauzkate, EAE eta Nafarroako batez bestekoa bikoiztera heltzen direlarik.**

# KULTUR EMANALDIEN HIRIBURUETAKO KONTZENTRAZIO MAILA




•**EAE eta Nafarroako kultur emanaldien %42,56a hiriburuetan egiten da.**

Kultur emanaldiek hiriburuetan duten kontzentrazio maila esanguratsua da. Halere kontzentrazio hau desberdin banatzen da lurraldeen arabera, 3 eredu desberdin osatuz:

**Araba:** kontzentrazio maila altuenarekin , lurraldean egindako 5 emanalditik 4 hiriburuan egiten dira. (%78,65).

**Bizkaia eta Nafarroa:** kontzentrazio maila ertainarekin. Hiriburuan eskainitako emanaldiak lurralde osoan egindakoen erdia baino gutxixeago dira. (%44,79 eta %42,56 hurrenez hurren).

**Gipuzkoa:** kontzentrazio maila baxua da, emanaldi deszentralizatuenak dituen lurraldea da. Hiriburuak emanaldien herena baino pixkat gehiago biltzen du (%37,18).

# EMANALDI KOPURUA KULTUR JARDUEREN ARABERA




| KULTUR JARDUERA MOTA | EMANALDI KOPURUA | % |
|---|---|---|
| MUSIKA | 5.863 | 43,68 |
| ANTZERKIA | 2.981 | 22,21 |
| ZINEMA (Ez komertziala) | 2.131 | 15,87 |
| ERAKUSKETA | 823 | 6,13 |
| HITZALDIA | 642 | 4,78 |
| BERTSOLARITZA | 509 | 3,79 |
| DANTZA | 380 | 2,83 |
| BISITASK | 55 | 0.40 |
| AZOKAK | 25 | 0,18 |
| PRESTAKUNTZA | 11 | 0,08 |
| **GUZTIRA** | **13.420** | **100%** |

➢Emanaldiak jarduera kulturalen arabera banatzean ikusten da musika, antzerkia eta zinema (ez-komertzialean) sartzen direla jarduera gehienak. Bost emanalditik bakarra dagokio beste kultur jarduerei.

➢Emanaldi kopuruari dagokionez, musika jarduerak dira gehiengoa ( 5.863 emanaldi - %44a) antzerki jarduerekin batera (2.891 emanaldi - %22a).

- **Kultur jardueren %80a baino gehiago musika, antzerkia eta zinema ez komertzialaren alorrei dagokio.**

- **Musika jarduerek emanaldi guztien %43a baino gehiago hartzen dute.**

## EMANALDI KOPURUA AZPIEGITUREN ARABERA

| ESPARRU EDO GUNEA | EMANALDI KOPURUA | PORTZENTAIA |
|---|---|---|
| KILTUR ETXEA / AUZO-ETXEA | 2579 | 19,22% |
| TABERNA-DISKOTEKA | 1893 | 14,11% |
| ANTZOKIAK | 1488 | 11,09% |
| LEKU PUBLIKOAK | 1272 | 9,48% |
| FINANTZA ERAKUNDEAK | 895 | 6,67% |
| MUSIKA ARETOAK | 860 | 6,41% |
| ERLIJIO GUNEAK | 429 | 3,20% |
| GAZTETXE | 390 | 2,91% |
| MUSEOA | 383 | 2,85% |
| ELKARTEAK | 353 | 2,63% |
| KONTSERBATORIOAK / MUSIKA ESKOLAK | 350 | 2,61% |
| ZINEMAK | 341 | 2,54% |
| IKASTETXEAK | 327 | 2,43% |
| ZENTRO KOMERTZIALAK | 299 | 2,22% |
| ENTZUNARETOAK | 258 | 1,92% |
| BESTELAKOAK | 250 | 1,86% |
| GUNE MASIBOA | 233 | 1,73% |
| ARTE GALERIAK | 225 | 1,68% |
| LIBURUTEGIAK | 212 | 1,58% |
| ERAKUSKETA ARETOAK | 192 | 1,43% |
| JATETXEAK | 102 | 0,76% |
| HOTELAK | 89 | 0,67% |
| **GUZTIRA** | **13420** | **100%** |

**•Kultur etxeek, tabernek eta antzokiek kultur emanaldien erdia baino gutxixeago biltzen dute (%44,2).**

➢ Kultur emanaldiak hartzen dituzten azpiegiturak arras desberdinak dira, 22 mota desberdinduz. Halere kultur etxe, taberna eta antzokiak dira garrantzitsuenak, emanaldi edo jardunaldien %44,2a egiten bait da beraietan.

➢ Kultur etxe / auzo etxeak dira kultur emanaldi gehien hartzen dituzten azpiegiturak (%19,22). Esparru hauetan egiten dira Antzerki, Zinema ez-komertziala, Erakusketa edota Hitzaldiekin lotutako jarduera gehienak. Aldiz, beste kultur jarduera batzuk kultur etxeetatik kanpo egiten dira, esaterako, Musika (batez ere taberna-diskoteketan), Bertso-ekitaldiak (leku publikoetan) eta Dantza (antzokietan).

## EMANALDI KOPURUA ORDUTEGIAREN ARABERA







- Egunean zehar egindako kultur emanaldien banaketa handituz doa eguna aurrera joan ahala, gauez 20:00etatik 23:00 bitartean, egiten dira jarduera gehienak (%50).
- Goizaldean (23:00 aurrera) kultur emanaldien %4a bakarrik egiten da.

- Goizez 9:00-15:00 bitartean, jardueren %8a biltzen da.

**• Kultur jardueren erdia (%50,16) gauez (20:00-23:00) egiten da.**

## EMANALDI KOPURUA HIZKUNTZAREN ARABERA ( %etan)




•EAE eta Nafarroan egindako kultur emanaldien erdian gaztelera erabiltzen da.

•Analisirako ez dira kontuan hartu hizkuntzarik ez darabilten jarduerak –erakusketak, bisitak, dantza, azokak-.

•Beraz, analisi honen azterketa lagina 10.547 emanalditakoa da.

➢Hizkuntzaren arabera egindako banaketan ikusten da gaztelera emanaldien erdian erabiltzen dela (%51- 5.409 emanaldi). Euskararen kasuan, emanaldien laurdenean inguruan erabiltzen da(%27- 2844 emanaldi).

➢Eskainitako emanaldien %10ean (1.030) euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza batean garatu da.

# ONDORIOAK

## Datu Orokorrak

### DATA




-**Hilabeteka:** Hilabeteko 2.236 emanaldi egiten dira batez beste (73,7 egunean). Maiatza da, 2.833 ekitaldirekin kultur jardunik handiena erakusten duen hilabetea.

-**Asteko egunetan:** Emanaldiak astebukaeratan eskaintzen dira bereziki (ostirala, larunbata, igandea), burututakoen erdia baino gehiago direlarik guztira (7.825 emanaldi, %58,3).

---

### LEKUA



-**Lurraldeka:** Lurraldeka egindako banaketak ondoko baloreak ematen ditu: Bizkaian (%37a), Gipuzkoan (%30a) eta Nafarroan (%22a) eta Araban ( %10a).

-Analisiak iraun duen denboran (2008 urtar-ekain) lurraldeek eskainitako batez bestekoa 10.000 biztanle /hileko 8,14 kultur emanaldikoa da.

### HIRIBURUAK

- **Hiriburuek biltzen dituzte emanaldi gehienak** eskualdeekin alderatuz gero.
- Araban **emanaldi gehienak hiriburuan egiten dira**, kontzentrazio maila altuena eskainiz. Gipuzkoak du kontzentrazio maila txikiena.

---

### JARDUERA



- **Musika, antzerkia eta zinema**ri dagozkion emanaldiek %80a baino gehiago dira.
- Musika ekitaldiek kultur emanaldi guztien %43a hartzen dute.

---

### AZPIEGITURA



- Emanaldien %44,42a **Kultur etxe/ Auzo etxeetan, taberna eta antzokietan** egiten da.

---

### EUSKARA




- **Euskara** kultur emanaldien laurdenaren inguruan erabiltzen da (%27).

## II. ANALISI ZEHATZA SEKTOREKA (22-72)


| | |
|---|---|
| MUSIKA | 23. Orria |
| ANTZERKIA | 32. Orria |
| ZINEMA | 38. Orria |
| DANTZA | 44. Orria |
| ERAKUSKETAK | 49. Orria |
| BERTSOLARITZA | 54. Orria |
| HITZALDIAK | 60. Orria |
| AZOKAK | 65. Orria |
| BISITAK | 68. Orria |



## MUSIKA (23-31)

# MUSIKA

***5.863 Musika emanaldi**

***8.487 Musika ekitaldi**

## MUSIKA EMANALDIAK ASTEKO EGUNETAN ZEHAR

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **EMANALDI KOPURUA** | 208 | 371 | 399 | 715 | 1.740 | 1.879 | 551 | 5.863 |
| **%** | 3,54 | 6,32 | 6,8 | 12,19 | 29,67 | 32,04 | 9,39 | 100 |




➢Musika emanaldien kopurua handituz doa astea aurrera joan ahala.

➢ Astebukaerako hiru egunetan (Ost-Lar-Igan) musika emanaldien hiru laurdenak egiten dira (4.170 emanaldi).

➢ Osteguna ere aipatzeko eguna da, egun honetan igandean baino emanaldi gehiago antolatzen dira.

•Musika emanaldiak batez ere astebukaeretan eskaintzen dira (%71)

## MUSIKA EMANALDI KOPURUA ORDUTEGIAREN ARABERA

➢Musika emanaldi kopurua egunean zehar banatzean 15:00tik gauera bitartean kopurua igotzen doala ikusten da, gehienak 20:00ak 23:00ak bitartean eginez(3425 emanaldi, %58a). Goranzko joera hori goizaldearekin apurtzen da, 441 emanaldira jeistean, emanaldi guztien %7,5a.




•Musika jardueren erdia baino gehiago (%58) gauez egiten da (20:00-23:00).

(*) Ikus hiztegia 9. orrialdean

# MUSIKA

## MUSIKA EMANALDI KOPURUA LURRALDE ETA HIRIBURUETAN BANATURIK




➢Musika emanaldiak lurraldeka banatzean Bizkaia (%40,33) eta Gipuzkoak (%29,59) dituzte lehen postuak. Aipatzekoa da halere biztanleriaren arabera Gipuzkoa dela biztanleko emanaldi gehien egiten dituen lurraldea.

➢Araba (%11,32) musika emanaldi gutxien dituen lurraldea da.

**•Musika emanaldii gehienak (%69,92) Bizkaia eta Gipuzkoan egiten dira**

| HIRIBURUAK | EMANAL DIAK | HIRIBURUAK/ LURRALDEA | 10.000biz/ hileko EMANALDIAK* |
|---|---|---|---|
| **BILBO** | 1100 | 46,51% | 5,19 |
| **DONOSTIA** | 642 | 37% | 5,84 |
| **GASTEIZ** | 524 | 78,91% | 3,8 |
| **IRUÑA** | 533 | 48,49% | 4,55 |
| **HIRIBURUAK Guztira** | 2799 | 47,74% | 4,85 |
| **GUZTIRA (EAE + NAFARROA)** | 5863 | ----- | 3,55 |

** 10.000 bizt/ emanaldien ratioa, 2008ko urtarrila-ekaina bitartean bildua.*

➢Musika emanaldien hiriburuetako kontzentrazio maila arras desberdina da kasu batetik bestera, Gasteizek kontzentrazio maila altua du (lurraldeko 5 emanalditik 4 ditu) Donostia dago beste aldean (emanaldien herena baino pixkat gehiago eskainiz).

➢Biztanleriaren araberako emanaldien ratioak diosku hiriburuetan 10.000 biztanle/hilean 5 emanaldi eskaintzen direla. Donostia da kasurik aipagarriena biztanleko jarduera gehien eskainiz.

**•Hiriburuetako musika emanaldien ratioa 10.000 biztanle /hileko bost emanaldikoa da.**

# MUSIKA

## MUSIKA EMANALDI KOPURUA UDALERRIKA (hiriburuak kontuan hartu gabe)

| UDALERRIAK* | EMANALDIAK | 10.000biz/ hileko EMANALDIAK |
|---|---|---|
| **BARAKALDO** | 182 | 3,14 |
| **IRUN** | 87 | 2,4 |
| **BERGARA** | 86 | 9,6 |
| **ARRASATE** | 80 | 6,02 |
| **BURLADA** | 71 | 6,45 |
| **GETXO** | 70 | 1,42 |
| **DURANGO** | 69 | 4,18 |
| **TOLOSA** | 65 | 6,05 |
| **GERNIKA** | 58 | 5,97 |
| **SESTAO** | 57 | 3,19 |
| **AMOREBIETA** | 55 | 5,26 |
| **LEIOA** | 51 | 2,9 |

**Musika emanaldi gehien jaso duten udalerrien zerrenda.*

➢Emanaldi gehien eskaintzen dituzten 12 udalerrien (hiriburu gabe) emaitzak ez dira oso desberdinak balio absolutuetan, halere biztanleria kontuan hartuz, 2008ko lehen seihilekoan, 10.000 biztanle/ hilean eskainitako emanaldien ratio desberdinak ditugu:

•EAE eta Nafarroako (3,55) 10.000 biztanle/hileko musika emanaldien tasa ia-ia bikoizten duten udalerriak: Bergara (9,6), Burlata (6,45), Tolosa (6,05) edo Arrasate (6,02) adibidez.

• Aztertutako lurraldeen batez bestekoa baino tasa txikiagoak dituzten udalerriak daude zerrendan, Getxo (1,42) Irun (2,4) edota Leioa (2,9) esaterako.

•Batez bestekotik hurbil dauden udalerriak Sestao (3,19) edota Barakaldo (3,14) adibidez.

**• Hiriburuak alde batera utzita, Barakaldo da musika emanaldi gehien eskaintzen dituen udalerria.**

**•Bergara, Burlata eta Tolosa dira hilabetean biztanleko musika emanaldi gehien eskaintzen dituzten herriak.**

# MUSIKA

## MUSIKA EMANALDI KOPURUA AZPIEGITURAREN ARABERA

| GUNE MOTA | EMANALDIAK | % |
|---|---|---|
| TABERNA-DISKOTEKA | 1.573 | 26,82% |
| LEKU PUBLIKOA | 787 | 13,42% |
| MUSIKA ARETOA | 723 | 12,33% |
| KULTUR ETXEA | 466 | 7,94% |
| ERLIJIO GUNEA | 401 | 6,83% |
| ANTZOKIA | 320 | 5,45% |
| MUSIKA ESKOLA | 293 | 4,99% |
| GAZTETXEA | 286 | 4,87% |
| FINANTZA ERAK. GUNEA | 213 | 3,63% |
| ENTZUNARETOA | 201 | 3,42% |
| ZENTRO KOMERTZIALA | 123 | 2,09% |
| ELKARTEEN ARETOA | 90 | 1,53% |
| GUNE MASIBOA | 90 | 1,53% |
| IKASTETXEAK | 76 | 1,29% |
| BEZTELAKOAK | 221 | 3,76% |
| **GUZTIRA** | 5.863 | 100% |




➢Musika emanaldiak aurkeztutako azpiegituren arabera banatzean taberna-diskotekak agertzen dira leku erabilienak bezala (%26,82), leku publikoak (%13,42) eta Musika aretoek (%12,33) jarraiturik.

- **Musika taularatzeko orduan taberna-diskotekak dira leku erabilienak (%26, 82).**
- **Leku publikoetan (plaza, kale, festa-guneetan,…) 787 emanaldi egin dira aztertutako 6 hilabeteetan.**

# MUSIKA

**4.199 talde taularatu dira gutxienez 2008ko urtarrila-ekaina bitartean.**

## MUSIKA TALDE KOPURUA

### TALDEEN JATORRIAREN ARABERA




### MUSIKA MOTAREN ARABERA




- **2008ko lehen seihilekoan jo duten 4.199 taldeetatik %43a euskal herrikoak ziren. Taldeen % 64ak herri-musika lantzen zuen.**

➢Euskal Herrian gutxienez ekitaldi batean jo duten musika taldeak 4.199 izan dira. Beraien jatorriari behatuz ikusi daiteke erdia baino gutxiago (%43) EAE eta Nafarroakoak direla, kanpotik etorritakoak 2.375 diren bitartean. EAE eta Nafarroako taldeek landutako musika mota nagusia herri-musika izan da (1.166).

# MUSIKA

## MUSIKA TALDE KOPURUA MOTA ETA ESTILOAREN ARABERA

- Musika taldeak estiloka banatzean bi mota desberdintzen dira:

**Musika klasikoa:** hemen Koralak, orfeoiak-eskolaniak dira nagusi bakarlari-instrumentalistekin batera, 2008ko lehen seihilekoan taularatu diren taldeen %61a dira.

MUSIKA KLASIKA ESTIKOAK




- **Herri-musika:** Pop-rocka da garrantzitsuena, lanean izan diren taldeen %66ak estilo hau erabili du.

HERRI-MUSIKA ESTILOAK




- **2008ko lehen seihilekoan taularatu diren talde gehienak Pop-rock alorrekoak eta Koral-orfeoi-eskolaniak izan dira.**

# MUSIKA

**8.487 Musika ekitaldi 2008ko urtarrila- ekaina bitartean**

## MUSIKA EKITALDIAK TALDEEN JATORRIAREN ARABERA




➢Musika mota bietan, talde gehienak Euskal Herritik etorri dira, taldeen %60 baino pixkat gutxiago direlarik.

➢Taldeen jatorriaren araberako musika emanaldien banaketak erakusten du, bai Klasiko zein Herri-musika motetan talde gehienak Euskal Herrikoak direla, esan behar da emanaldi gehienak Euskal Herriko taldeek egiten dituztela nahiz eta hauen kopurua kanpotik datozenena baino txikiago izan.

- Herri-musikan ekitaldien %57,8a euskal taldeek egindakoak izan dira.
- Musika Klasikoan aritu diren taldeetan euskal taldeen portzentaia %58,12koa da.

# MUSIKA

## MUSIKA EMANALDI KOPURUA TALDEEN ESTILOAREN ARABERA

**HERRI-MUSIKA ESTILOAK**




➢Herri-musikan, ekitaldietako estilo erabiliena Pop-rocka izan da (%64,51arekin)

**MUSIKA KLASIKA ESTILOAK**




➢Musika Klasikoan Koralak-Orfeoiak-Eskolaniak izan dira talde ugarienak, emanaldi kopuru handienarekin (736 emanaldi).

**•Pop-rocka eta Koralak-orfeoiak-eskolaniak dira emanaldi kopuru altuena duten musika estiloak.**



## ANTZERKIA (32-37)

# ANTZERKIA

**2.981 antzerki emanaldi**

**621 konpainia lanak aurkezten**

**Errotazioa : 4,8 emanaldi konpainiako**

## ANTZERKI EMANALDIAK ASTEKO EGUNAREN ARABERA

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **EMANALDI ZENBAKIA** | 154 | 318 | 371 | 536 | 655 | 581 | 366 | 2981 |
| **%** | 5,16 | 10,66 | 12,44 | 17,98 | 21,97 | 19,49 | 12,27 | 100 |

➢Antzerki emanaldien astean zeharreko banaketa nahiko uniformea da, ostirala da egunik aipagarriena emanaldi kopuru aldetik (% 21,97). Halere nahiz eta antzerkilan gehienak astebukaeretan diren bitartean (%70) beste diziplinak (ipuin-kontalariak, magia…) astegunetan zehar eskaintzen dira, astelehenetik ostegunera %62ko kontzentrazioa dagoelarik.




• Antzerki jarduerak aste guztian zehar egiten dira uniformeki, astelehenak ezik, noiz asko jeisten da antzerki emanaldi kopurua.

## ANTZERKI EMANALDIAK ORDUTEGIAREN ARABERA

➢Antzerki emanaldien egunean zeharreko banaketan ikusten da batez ere arratsaldez taularatzen direla gehien (%55) gauetan pixkat jeisten delarik portzentaia (%34,4), goizez zerbait ikus daiteke (8,17) eta ezer gutxi goizaldean (%1,9).




•Antzerki jardueren erdia baino gehiago arratsaldez da (15:00-20:00).

# ANTZERKIA

## ANTZERKI EMANALDI KOPURUA LURRALDE ETA HIRIBURUETAN




➢Antzerki emanaldiak lurraldeka banatzean, Bizkaia (1083 – %36,33) da nagusi.

➢Araba (201 - %6,74) da antzerki emanaldi gutxien egiten diren lurraldea.

•Bizkaian taularatzen dira antzerki emanaldien herena baino gehiago.

| HIRIBURUAK | EMANALDIAK | HIRIBURUAK/ LURRALDEAK | 10.000biz/ hileko EMANALDIAK* |
|---|---|---|---|
| **BILBO** | 359 | 33,14% | 1,69 |
| **DONOSTIA** | 360 | 42,3% | 3,27 |
| **GASTEIZ** | 145 | 72,13% | 1,05 |
| **IRUÑA** | 327 | 38,65% | 2,79 |
| **HIRIBURUAK Guztira** | 1191 | 39,95% | 2,06 |
| **GUZTIRA (EAE + NAFARROA)** | 2981 | ----- | 1,8 |

**10.000 biz./emanaldi ratioa 2008ko urtarrila-ekaina bitartean bilduta*

➢Antzerki ikuskizunen hiriburuetako kontzentrazio maila nahiko uniformea da, lurralde osoaren %33-42 ingurukoa. Kontzentrazio maila baxu honen beste alderdia Gasteizen daukagu: Araban egindakoaren %72a hiriburuan eskaini da.

➢Biztanleko antzerki emanaldien ratioak, lurraldeetakoak (EAE eta Nafarroa) baino altuagoak dira; ratioa 2,06 emanaldikoa da hiriburuetan, lurraldeetakoa 10.000 biztanleko / hilabetean 1,8 emanaldi den bitartean.

➢ Donostia (3,27) eta Iruña (2,79) dira 10.000 biztanleko / hilabetean egindako emanaldien ratio altuenak dituzten hiriburuak.

•Hiriburuetako antzerki emanaldien ratioa, batez besteko orokorra baino altuagoa da, 10.000 biztanle/hileko 1,8 emanaldi guztira.

# ANTZERKIA

## ANTZERKI EMANALDI KOPURUA UDALERRIETAN (hiriburuak alde batera utzita)

| UDALERRIAK* | EMANALDIAK | 10.000biz/ hileko EMANALDIAK* |
|---|---|---|
| **GETXO** | 67 | 1,36 |
| **BASAURI** | 58 | 2,23 |
| **BARAKALDO** | 56 | 0,96 |
| **SANTURTZI** | 53 | 1,87 |
| **ERMUA** | 43 | 4,4 |
| **EIBAR** | 38 | 2,31 |
| **ARRIGORRIAGA** | 37 | 4,99 |
| **BARAÑAIN** | 36 | 2,74 |
| **GALDAKAO** | 35 | 1,99 |
| **IRUN** | 32 | 0,88 |
| **AMOREBIETA** | 29 | 2,77 |

*Antzerki emanaldi gehien eskaini diren udalerrien zerrenda*

➢Antzerki emanaldi gehien eskaintzen duten 11 udalerriek balore ezberdinak erakusten dituzte biztanle/ hileko emanaldiak aztertzen dituen ratioa hartuz, ondokoa desberdindu dezakegu:

•EAE eta Nafarroan, 10.000 biztanleko / hilabetean emanaldien tasa (1,8) bikoizten duten udalerriak daude, esaterako, Arrigorriaga (4,99), Ermua (4,4) eta Zornotza-Amorebieta (2,77).

• Aztertutako lurraldeen media baino tasa txikigoa dutenak, Irun (0,88) eta Barakaldo ( 0,96) adibidez.

•Batez bestekoa bezalako emaitzak dituzten udalerriak: Santurtzi (1,87), Galdakao (1,99) edo Getxo (1,36).

**• Hiriburuak kontuan hartu gabe, antzerki emanaldi gehien Getxon ikusi da 2008ko lehen seihilekoan**

**•Arrigorriaga, Ermua eta Zornotza dira biztanleko hilabetean antzerki gehien eskaintzen duten udalerriak.**

# ANTZERKIA

## ANTZERKI EMANALDIAK AZPIEGITURAREN ARABERA

| ESPAZIO MOTA | EMANALDI KOPURUA | % |
|---|---|---|
| KULTUR ETXEA | 774 | 25,96% |
| ANTZOKIA | 613 | 20,56% |
| FINANTZA ERAK. GUNEA | 553 | 18,55% |
| LEKU PUBLIKOA | 215 | 7,21% |
| TABERNA-DISKOTEKA | 169 | 5,66% |
| LIBURUTEGIA | 139 | 4,66% |
| MUSIKA ARETOA | 87 | 2,91% |
| IKASTETXEA | 84 | 2,81% |
| GUNE MASIBOA | 56 | 1,87% |
| ZINEMA | 49 | 1,64% |
| ELKARTEEN ARETOA | 43 | 1,44% |
| ZENTRO KOMERTZIALA | 41 | 1,37% |
| BESTE BATZUK | 158 | 5,30% |
| **GUZTIRA** | 2981 | 100% |




➢Antzerki emanaldiak azpiegituraren arabera banatzean, erabilienak Kultur-etxeak (%25,96) eta Antzokiak (%20,56) direla ikusten da. Aipatzekoak dira finantza erakundeen aretoak ere (CANcha, Vital Kutxa, Kutxa o BBK) 553 emanaldirekin, kopuru osoaren %20a.

➢Antzerki ikuskizun motei begiratuz, esan, antzokiek antzezlan gehienak hartzen dituztela, beste azpiegituretan, liburutegi, kultur etxe /auzo-etxe eta tabernetan adibidez, ipuin-kontalariak, bakarrizketak eta poesia errezitaldiak dira nagusi.

**•Antzerki emanaldiak taularatzeko azpiegitura erabilienak Kultur Etxeak (%25,96) eta Antzokiak (%20,56) dira.**

# ANTZERKIA

## ANTZERKI EMANALDI KOPURUA TIPOLOGIAREN ARABERA (balio absolutuak)




| BESTE DIZIPLINAK | EMANALDI KOPURUA |
|---|---|
| **IPUINKONTALARIA** | 661 |
| **MAGIA** | 298 |
| **BAKARRIZKETA** | 167 |
| **PAILAZOA** | 142 |
| **TXOTXONGILOA** | 137 |
| **ERREZITALDI POETIKOA** | 85 |
| **ZIRKOA** | 48 |

- **Antzezlanak (antzerki obrak) dira antzerki emanaldien barruan pixu gehien dutenak (%48,4).**

➢Beraien tipologiari begiratuz, antzerki jarduera garrantzitsuenak antzezlanak edo antzerki obrak dira, guztira %48,4 direlarik.

➢Beste eredu eszenikoak hartuz, ipuin-kontalarien narrazioak bost emanalditik bat suposatzen dute (%22,17). Beste diziplinak (magia, txotxongilloak, pailazoak…) askoz gutxiago antzezten dira (%10etik behera bakoitza) beste antzerki jarduerekin alderatuz gero.



## ZINEMA –ez komertziala- (38-43)

# ZINEMA

**Zinema ez-komertzialeko 2.131 emanaldi**

## EMANALDI KOPURUA ASTEKO EGUNAREN ARABERA

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **EMANALDI KOPURUA** | 168 | 270 | 251 | 459 | 449 | 227 | 307 | 2.131 |
| **%** | 7,88 | 12,67 | 11,77 | 21,53 | 21,06 | 10,65 | 14,4 | 100 |




➢Zine emanaldien banaketa (komertziala alde batera utzirik) uniformeki banatzen da asteko egunetan zehar.

➢Ostegunetan (%21,53) eta ostiraletan (%21,06) antolatzen dira zine emanaldi gehien.

- **Emanaldi gehienak ostegunetan egiten dira, eskaintzaren % 21,53 hain zuzen.**

## EMANALDIAK ORDUTEGIAREN ARABERA

➢Egunean zeharreko zinema emanaldi banaketak erakusten du arratsaldez (%50,1) eta gauez (%46,77) antolatzen direla ia denak, goizez gutxi batzuk sartzen direlarik (%3,07).




- **Zine emanaldi gehienak (ez-komertzialak) arratsaldez proiektatzen dira (15:00-20:00)**

.

# ZINEMA

## LURRALDE ETA HIRIBURUETAKO EMANALDI KOPURUA




➢Zine emanaldiak lurraldeka banatzeko orduan, Bizkaia (536) eta Gipuzkoa (533,12) dira lehenak.

| HIRIBURUAK | EMANALDIAK | HIRIBURUAK/ LURRALDEAK | 10.000biz/ hileko EMANALDIAK* |
|---|---|---|---|
| **BILBO** | 352 | 45,89 | 1,66 |
| **DONOSTIA** | 221 | 31,3 | 2,01 |
| **GASTEIZ** | 120 | 81,63 | 0,87 |
| **IRUÑA** | 142 | 27,78 | 1,21 |
| **HIRIBURUAK GUZTIRA** | 835 | 39,18 | 1,44 |
| **GUZTIRA (EAE +NAFARROA)** | 2131 | ----- | 1,29 |

**10.000 biz./emanaldi ratioa, 2008ko urtarrila-ekaina bitartean bilduta*

➢Zine emanaldien kontzentrazioa hiriburuetan (beraien lurraldeekin alderatuz) oso desberdina da, kasuaren arabera ikus daiteke:

•Iruñea (%27,78) eta Donostiak (%31,3) kontzentrazio maila baxuak dituzte.

•Gasteizek (%81,63) kontzentrazio maila oso altua du, Arabako emanaldien gehiena antolatzen duelarik.

➢Biztanleko emanaldien ratioak dio Donostian egiten direla gehien 10.000 biztanle/hileko 2,01 emanaldi hain zuzen.

**•Bizkaia eta Gipuzkoak hartzen dituzte zine emanaldi gehienak (%69,12).**

**•Hiriburuetako biztanle/emanaldi ratioa (1,44) batez bestekoa baino zerbait altuagoa da, orokorra 10.000 biztanle /hileko 1,29 emanalditakoa da.**

# ZINEMA

## EMANALDI KOPURUA UDALERRIKA
## ( hiriburuak alde batera utzirik)

| UDALERRIAK* | EMANALDI KOPURUA | 10.000biz/ hileko EMANALDIAK* |
|---|---|---|
| **ALTSASUA** | 95 | 21,03 |
| **BASAURI** | 89 | 3,42 |
| **TAFALLA** | 68 | 10,19 |
| **GETXO** | 68 | 1,38 |
| **TOLOSA** | 47 | 4,37 |
| **LEIOA** | 45 | 2,56 |
| **IRUN** | 36 | 0,99 |
| **ELGOIBAR** | 34 | 5,2 |
| **CASTEJÓN** | 29 | 12,19 |
| **LEGAZPI** | 26 | 5,02 |
| **ERMUA** | 24 | 2,45 |
| **ARRASATE** | 24 | 1,8 |
| **BERGARA** | 24 | 2,69 |

**Zine emanaldi gehien programatu dituzten udalerrien zerrenda*

- Zine emanaldi gehien egiten dituzten 13 udalerrietan 10.000 biztanle / hileko emanaldien ratioko emaitzak orokorrean hiribuetakoak eta media orokorra baino altuagoak dituztela.

- Ratio altuenak ( 10.000 biztanle /hileko 10 emanaldi baino gehiago) zinema programazio iraunkorra eskaintzen duten zinemak, aretoak eta kultur guneak dituzten udalerrietakoak dira (zineklub edo zikloetara lotutakoak….). Erakusle garbienak Altsasu, Castejon edota Tafalla dira.

- **Hiriburuak alde batera utzita Altsasuko (Nafarroa) datuak dira aipagarrienak, Altsasun 10.000 biztanle /hilean 21 zine emanaldi egin dira.**

# ZINEMA

## EMANALDI KOPURUA AZPIEGITURAREN ARABERA




| ESPAZIO MOTA | EMANALDI KOPURUA | % |
|---|---|---|
| KULTUR ETXEA | 751 | 35,24% |
| ANTZOKIA | 397 | 18,62% |
| ZINEMA | 256 | 12,01% |
| MUSEOA | 209 | 9,80% |
| ZENTRO KOMERTZIALA | 95 | 4,45% |
| FINANTZA ERAK. GUNEA | 78 | 3,66% |
| ELKARTEEN ARETOA | 67 | 3,14% |
| GAZTETXEA | 67 | 3,14% |
| IKASTETXEAK | 42 | 1,97% |
| TABERNA-DISKOTEKA | 36 | 1,68% |
| ERAKUSKETA ARETOA | 20 | 0,93% |
| BESTE BATZUK | 113 | 5,30% |
| **GUZTIRA** | **2131** | **100%** |

➢Zine emanaldien banaketa hauek proiektatzen diren azpiegitura kontuan hartuz, 3 tipologia nagusi ikus daiteke:

•Kultur Etxeak non emanaldien herena egiten da (%35,24).

•Antzoki eta Museoetan, proiekzioen %30 antolatzen da.

• Zinemak emanaldi guztien %12a bakarrik hartzen dute.

•Gainerako guneek (Merkatal zentro, finantza erakundeetako aretoak, elkarteak, gaztetxeak, ikastetxeak…) 4 zine emanalditik bakarra antolatzen dute.

**•Kultur etxeak dira zinema (ez-komertziala) gehien programatzen duten kultur azpiegiturak.**

# ZINEMA

## EMANALDIAK TIPOLOGIAREN ARABERA (absolutuak)




➢Zine emanaldien banaketa tipologikoan luzematraiak dira nagusi, guztira %75,73a direlarik.

➢Beste eredu zinematografikoek, askoz ere gutxiago izanik ere, 4 emanalditik 1 hartzen dute guztien artean.

•**Luzemetraiak dira zine emanaldien % 75,73a**

## EMANALDI KOPURUA PROIEKZIOAREN JATORRIAREN ARABERA

➢Zine emanaldiakk proiekzioaren jatorriaren arabera banatzean gehienak AEBtakoak (%36) eta europarrak (%25) direla ikus dezakegu.

➢Euskal jatorrikoek proiekzio guztien %10a inguru suposatzen dute.




•**Zinema luzemetrai gehienak Europa eta AEBtan dute jatorria (%60).**



## DANTZA (44-48)

# DANTZA

**380 dantza emanaldi** | **169 konpainia jardunean**

## DANTZA EMANALDIAK ASTEKO EGUNETAN ZEHAR

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **EMANALDI KOPURUA** | 9 | 15 | 30 | 27 | 87 | 141 | 71 | 380 |
| **%** | 2,36 | 3,94 | 7,89 | 7,1 | 22,89 | 37,1 | 18,68 | 100 |




➢Dantza emanaldien astean zeharreko banaketa bi muturretan banatua dago:

